

**MANIFESTUA**  
**BIDEZKO MERKATARITZAREN MUNDU EGUNA, 2018ko**  
**maiatzak 12**  
***Bidezko Merkataritza gara***

Gaur, maiatzeko bigarren zapatu guztietan bezala, Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna ospatzen dugu.

Egun berezi honetan kontsumitzen ditugun produktuen atzean dauden munduko pertsona guztiak gogoratu nahi ditugu, XXI. mendean, oraindik diharduten esplotazio modu jasanezinak pairatzen jarraitzen baitituzte.

Gogoratu nahi dugu baita ere, gaur egun, esplotazioa ez dela zirkunstantziala edo sektore edo hornikuntza kate batean isolatuta dagoen praktika. Etekin ekonomiko handiena lortzea da gure sistemaren arau nagusia. Baliabide naturalen suntsitzea eta lan-esplotazioa inposatzen ditu Giza Eskubideen eta ingurumenaren errespetua saihestuz.

Errealitate hau herrialde askotan gertatzen da. Baina larriagoa da arrazoi historiko, kultural eta ekonomikoak direla eta, praktika horiek errazten dituzten tokietan. Laburbilduz, salatzea debekatuta dagoen tokietan, gardentasuna ez dagoen tokietan eta gizarte- eta sindikatu-babesa urriagoa den tokietan ematen da gehiago.

Hori dela eta, gure borroka mundu osora luzatzen da. Bidegabekeriak, gertatzen diren lekuan gertatzen direla, salatzen dituen borroka, hain zuzen. Multinazionalen gehiegikeriak salatzen dituen borroka, izan ere haien mozkinak gutxi batzuen artean banatzen dira, baina ondorioak guztiok ordaintzen ditugu. Ordezkaritza politikoei guztion zaintzarako, batez ere ahulenentzako, politika publikoen garapena eskatzen dien borroka.

Baina beste ekonomia- eta merkatu-modelo bat posible dela ospatzen duen borroka ere bada. Giza Eskubideak eta ingurunea, zaintzak eta eskubideak gure jarduera ekonomikoaren zutabea diren ereduak. Gaur jai giroa dugu Bidezko Merkataritzan eta milioika pertsonak, egunero, bizitza eta planeta errespetatzen dituen ekoizpen-, eta kontsumo-eredu hau posible egiten dutela ospatzen dugu. Gaur, beste mundu bat posible dela ospatzen dugu! **GAUR BIDEZKO MERKATARITZA GARELA OSPATZEN DUGU!**

**EGIN BAT BIDEZKO MERKATARITAREKIN!**